

IPARRAGUIRRE'REN ARTERIOA

Beti kezkatu nau nola zitekean, gitarra zartxo bat lagun arturik, munduz mundu euskera utsean kantatuz bizitza aurrera eramatea, gure Iparraguirrek egin zuan bezela. Bere agoz zion:

Gazte gaztetatikan erriak kanpora estranjeri aldean pasa det denbora.

Bohemia gorrian bizi izan bazan ere, ta kanta batzuek italez bazekizkian ere, euskerazko kantak erabili zituan oñarri. Argi ta garbi nabari zuan izkuntza jator baten indar berezia. Izkuntzaren indar orrek ematen zion arteriorako giroa. Arteriorako, eta bere bitartez, barnean zeramazkin kezka urduriak, euskalduna ez-ezik, gure izkuntza etzekiena ere laster kutsatzen ekian.

Berak sortutako kantak, berak eraturako musikaren bidez, azkar zabaltzen ziran Euskalerrri guzira. Euskaldunak beti arduratsu zeuden kanta berriari zain. Ta, egoan tokian egoala, bere albiste zabaltzen zan egarri egoan errian.

Zergaitik egiten zien orren arrera ona? Errazoi askoren artean, ongi kantatzezik aparte, gauzak esaten zekiela, kanta berri bakoitzak idea berri bat ekarrelako. Ta, gaur ere oraindik, zaartu badida ere, oraindik bizirik dabilta erriaren agoetan. Kezka iraunkorrak bereak, erriaren gogoan sakonki finkatu zituanak. Etziran esan bear utsak, doñu atsegin aien loturik jartzen zituanak.

Santamariak, ZERUKO ARGIA-ren 45-garren zenbakian, bere *Disparak* idazlanean dion bezela, euskeltzaleok, idartzen degun bakoitzean «gauzak» esateko egingo bagenuke, bear bada beste txori baten kanta izango litzake gure errian, Iparraguirrearen gisa. Alperrikako gauzetan denbora lartxo gaitzeaz gainera jendea asperitzen degu. Irakurleak ekarri bearrean uxatuz.

Iparraguirre bezelako artistak, kondairaren emaitza urriak dira. Baña emaitza oiek, maiz, erri-giro batek landuak izaten dira. Amaika urte geroago jaloa zan «Bilintxo», urteak igaroz oba-goia iduritzen zaigun poeta euskalduna, bere denboran Curros Enriques-en gorenmenak merezi izan zituna. Giro baten semeak ziran gure poeta biok. Ez pentsa, «Bilintxo», bere amorio-soke penak bakarrik landu zuenik; etzan elduko artara euskal poesiak sustrai berezirik izan ez balu.

Baña, asieran esan degun bezela, arrigariena da munduz

mundu ibiltzea euskera utsean kantatuz. Argi ikusten da Iparraguirre arterio lilluragarri baten jabe zala. Ez zan ez euskera utsa bakarrik, baña bai euskerari bere nortasuna ematen zion beste zerbait: bere abotsa ta bere musika. Ta guri, orrez gañera, bere itz jarioa, ideaz eta dotoretasunez beteriko itz jarioa; gaur ere, oraindik, bere mami gordetzen dualarik.

era ortara lilluratuko zuela jentzala ondarten duan bezela. Begira inguruz biratzen zaituan edertasunari eta gozatu zazu bizitzaren almenez ikusi dezazun. Utzi az eguzkiari bere biotzean itzartzen eta zeru urdina bere ariman dirdira dedin. Ta iñoiz lañurik bada, galdezazu: iñoiz ez balitz euririk, nola gozatuko nuke nik eguzki argiz?



Gaur, seguru asko, orduan bako artista geiago izango dira munduan zear, beren izkuntza ezagutzeke ere, toki guzietan istimatzen dituztenak. Euskaldunik ez; nik dakidanik beintzat.

Adibidez, Nana Mouskouri greziarraren abotsa entzuten dedan bakoitzean Iparraguirre datorik burura. Mouskouri ere, ura euskeraz bezela, grezieraz kantatuz dabil munduz-mundu. *Ximerosi* darabil geienetan. *Ximeroni*, Hadjidakis-ek eraturia da, greko folkloretik. Gai apalagorik ezin zitekean, maka «bouzouk» soñuaren laguntzarekin Mouskouri-ren abotsak egiten du mirakulua.

Au da, gutxi-gora-bera, gai apal orren maña, greziar nekazariak egunsentian lanera dijoztela: «Agurtu agurtu zazu egun berria buru argiz eta kezka gabe. Aitzu zaizkatu atzoko nekeak egunsentiko argiak gauaren

Orrek bururatzen zait, iñoiz, dea gure Iparraguirrek ere. Nana-ren abots ezta ez bazuan ere, bazuan bere arterioan orrelako imanezko gozo atsegin bat. Bestela ezta konprenitzen bere bohemian au:

Gitarra zartxo bat da nerretz laguna; onela ibiltzen da artista euskalduna; egun batean pobre, beste batez jauna, kantari pasatzen det nik beti eguna.

Lenengoko aldiz derrigorrez erbesterratu bazan ere, gelditu zezakean mugazandiko Euskalerrian; baña ez, bere barnean zeramaz txerturik bohemian ispiritu eta munduz-mundu ibilli bearra zuen artista euskaldunak. Ta urrutian, bere erri-miña len baño geiago sendotu zuan.

IZPIAK

«BITANO», euskal-bibliografille txukunak, Bustintza («Kirikiño») zanaren euskeraz idazteko gaitasun-paregabekoari-buruz, onela dio, aurreko gure idazkaien adierazten genduanaz gainera, aizkeneho («EGAN»-en argitara duen idazlan gusiz jakin-garriaren bukaeran:

«Aita Villasante'ren «Historia de la Literatura Vasca» liburuan be, —dio— Kirikiño'ri buruz ederto egindako bizitza labor bat dator. Kirikiño'ren euskal-lanik aipagarrienak, onetxek dira:

1. Irakurgai batzuk *Euskaltzale*, *Ibaizabal* eta *Euskeraz* aldizkarietan.
2. 1913'tik asita amasei urtean utsik egin barik «EUKEL-ATALA» Bilbo'ko egunkarian.
3. *Anton Berakatz*, Antzerkia.
4. Alfredo Etxabe'ren *Lelo* liriko-drama biurtu eban euskerara.
5. José Elizondo'ren *Txomin Arroyo* komeria biurtu eban Bizkaiko euskalkira.
6. Abelino Barriola'ren *Meza Berriya* itxuli eban Bizkaiko euskerara.
7. Abestutzeko kantu batzuk idatzi eban. Esate baterako: *Abestu bear degu*, *Geru gagoz*, *Txori Politu*, *Aitonaren esana*, eta abar eta abar.
8. *Abarrak*. 1918'an argitaratu zan liburu au, lendik argitaratuta euzkan kontu eta gertakizun batzuk batuta.
9. *Bigarrego Abarrak*. 1930'ean argitaratu eban liburu au Zornotza'ko abade euskaltzaleak.
10. 1954'ean, Euskaltzaindiak argitaratu eban liburutxo bat umientzako, 5 kontukin.
11. 1954'ean, Euskaltzaindiak berak argitaratu eban aipaturiko bost kontuak, gipuzkerara itxulita. Itxura berdifikoa dira liburutxo biak.
12. *Gastela - Mutillak*. Donostiako «Euskal-Esnaleakoeri» egindako itzaldia. *Bigarren Abarrak* liburuan argitaldu eban.
13. *Erakusleari* buruz be egin ei-eban liburu bat, baña argitaratu zanik ez dakigu

baliteke idazlana nun edo nun egotia».

«Bere bizitzari buruz —jarratzen du esanak «Bitano»-k— asko idatzi zan guerra aurreko egunkari ta aldizkarietan. Batez be ikusi leike *Euskeraz* aldizkariaren 11'garren zenbakia, (1929)-garren urteko Otsailaren 15'eko. Bere iru erretratu (argazki) be aurkitzen dira bertan; Bat il da gero aterariko, beste entieruarena, eta bera bizi zan Mañariko etxearena, azkenez».

Oraindik zertzelada geiago egin ematen dizkugu «Bitano» argiak, ausnartzen ari geran bere jakingaitz ornituriko idazlan orretan, esanak:

«Mañariko eskolan ibili zan —dio— gastetxotan, eta gero Durango'n, amabi urterartio. Almasa'n amaitu eban Batxilerratu. Oso zan argia ikastietarako, eta notarik onen-onetari-koak atara ebazan. Madrillera, 1883'an, injiniere ikasteko utsean, Migel Primo Rivera'kin batera egonzan ostatu-etxean. «Licenciado en Ciencias Fisico-Matemáticas» delako goi-mailako gradua artu eban 1891'an, Madrilleko Unibersidadean. Si-guenza'n egon zan irakasle, kolejo Nagusiam».

«Bilbora etorri, eta *Euskaltzale* ta *Ibaizabal* aldizkarietan laguntzen eutsan Azkue'ri. Baita [itzegia egiten be. Lau urtean egon zan Istitutoan euskera erakusten, Azkue'ren ordez, eta gero, beste goiti urtean, bera maixu zala, iñoren menpean egon barik. Sari bat irabazi eban 1901-VIII-26'an, Bilbon egin zirean Jai-Loretsuetan, Unamuno maiburuko zala».

Ori dana ta geiago egin zuan Bustintza zanak, bere bizitzan, EUSKERAREN PIZKUNDE ALDEZ, baiñan bere euskal-lan guzi-guziak zeatz agertu aal-izateko beartzeke litzakigun leku-aurkerarik oraingo ez-daukagunez, eskerrik beroenak biotz-biotz zuzentzen dizkiogu, «ZERUKO ARGIA»-ren bidez, bishaitar euskal-idazle jatorra dan «BITANO» adizkideari, bere erribide ta sende (oker epzagau-de) izaniko BUSTINTZA Euskal-Irakasle aundia zanaren idazlan ugarieri-buruz («EGAN»-en argitara digun idazlan txukun, irakurgarri ta jakin-garriagatik.

ZELETA

Geroztik etzaigu orrelakorik sortu.

Arterioak ere, bere eboluzio gurrillean, era berriak eskatzen ditu. Aize berriak arnasak irau

dezan. Ori litzake bide bakarra euskaldunak jarrai dezan ematen mundura frutua.

J. San Martín

GURE KONTSEJUA DA

ZOAZ Anjelita Martínez'era BITXITEGIA

Au da euskaldunen etxea. Bertan arkituko dituzu salgai merkeak eta balio ta iraupen aundikoak.

Plaza de Guipúzcoa, 11

SAN SEBASTIAN

"ZERUKO ARGIA" - Oquendo, 22 - SAN SEBASTIAN

FRANQUEO CONCERTADO N.º 37 - 21